

ETAren su-etena

Erreakzioak ♦ HB eta PS

«PP eta PSOEren gaineratik, euskal gizarteak jarriko du martxan bake prozesua», dio HBk

Permachen ustez, alderdi horiek «ez dute nahi Euskal Herria tunel ilunetik irtetea»

Herri Batasunak hizpide izan zuen atzo Espainiako Gobernuak ETAren su-etinari emandako erantzuna. Erantzun hori gogor kritikatu du HBk, «PPk eta baita PSOEek ere bake prozesuari ezezkua eman diotelako». Baina, horren gaineratik «Euskal Herriaren ordua» dela uste du alderdi abertzaleak, eta euskal gizarteak prozesua aurrera ateratzea lortuko duela uste du.

Aitziber Iartza / Donostia

JOSEBA PERMACH Mahai Nazionalen kideak Josep Pique Espainiako Gobernuak bozeramaileak esandakoak izan zituen hizpide. «Piquek eta Mayorrek esan dute ez dutela keinurik edo mugimendurik egingo, eta pauso bakarra ETA erakunde politikoren deusezte eta armak uztea dela. Beraz, argi erakutsi dute PP ezezkoaren alderdia dela», azaldu zuen Mahai Nazionalen kideak. Hori azaltzeko, gogoratu zuen PPk aurretik ere ezezkua eman ziola Alternatiba Demokratikoa-ri, Ardanazaren planari eta abar.

Halaber, horrelako erantzuna Europar bertan ere ez dela berria azaldu zuen, eta John Major Erresuma Batuko lehen ministroak bere garaian eman erantzuna gogoratu zuen. «Majorrek ere armen entregaren aitzakia jarri zuen, hauteskunderi begira denbora irabazteko. Baina Majorrek porrota jaso zuen hauteskunderietan, eta hemen ere PPk eta PSOEek porrota jaso beharko dute; izan ere, PP eta PSOE sustengatzea bake prozesuari ezezkua ematea da. PPk eta PSOEek ez dute nahi Euskal Herria egungo



Jon Gorrotxategi eta Joseba Permach HBko Mahai Nazionalen kideak atzoko prentsurrekoan.

ANDER GILLENEA

Mobilizaziorako deia

Jon Gorrotxategi Mahai Nazionalen kideak argi azaldu zuen su-etena indarrean egon arren, bakerik ez dagoela, «eskubideak ez baitira errespetatzen, eta errepresioa indarrean baitago». Egoera horren aurrean, Herri Batasunak uste du Euskal Herrira begiratzeko ordua dela, eta Euskal Herriaren alde lan eta borroka egiteko deia egin zuen. «Eus-

tunel ilunetik ateratzea», esan zuen Permache.

Hala ere, egoera honen gaineratik prozesuak aurrera egingo duela uste du HBk. «Euskal gizarteak berdin dio zer dioten PPk eta PSOEek, gehiengo zabalak irtenbide politiko eta demokrati-

ko Herriak akordio nazionalaren alde lan egitea erabaki duela», HBk zenbait mobilizazio deitu ditu urriaren 2an eta 3an «Euskal Herriak du hitza eta erabakia» leloaz. Hala, urriaren 2an 20:30etan manifestazioa antolatu du Iruñean. Urriaren 3an, berriz, 17:00etan Donostian, 17:30tan Bilbon, eta 18:00tan Gasteizen.

ko baten aldeko apustua egin duela. Euskal gizarteak bake prozesu bat martxan jarriko du PP eta PSOEren borondatearen gaineratik. Honek ez du atzera biderik. Euskal gizarteak Madril eta Parisen borondatearen gaineratik dago, eta euskal gizarteak

erakutsiko du bere eskuetan duela etorkizuna, eta soilik guri dagokigula prozesua azkartzea», adierazi zuen.

«Presoek Euskal Herrian behar dute egon, gizarteak dioelako» Joseba Permach mahaikidearen ustez, egungoa ez da keinuen garaia, baizik eta konponbide garaia. Horregatik, presoek Euskal Herriatzeaz galdetuta, hauek Euskal Herrian behar dutela egon azaldu zuen, «baina ez keinu gisa, baizik eta euskal gizarteak behin eta berririo eskatu duelako». X

Ipar Euskal Herriko Eusko Alkartasuna ♦

«Frantziak trabak ken ditzala»

«Iparraldeko Eusko Alkartasunak bere atsegina jakinarazi nahi du euskal alderdi politiko batzuek, hala nola EA, EAJ, HB eta IUK Lizarran egin duten akordioagatik. Bai eta, nola ez, ETAK armen isilarazteaz hartu berri duen erabaki zentzuzkoagatik. Gertakari berri horiek ikusiz, eta Europaren erakuntza garaian, Frantziako Estatuak ez du orain aitzakiarik Euskal Herriko bi aldeek bat egiteko bidean trabarik ezartzeko. Helburu horretan, argi ageri dira Ipar Euskal Herriak beharrezkoak dituen egitura juridiko eta administratiboak. Gutierrez departamendu bat!». X

Ipar Euskal Herriko Giza Eskubideen Komitea ♦

«Frantziak Espainia bide onera eramane behar du»

«Lizarrako akordio politikoak eta ETA erakunde armatuaren mugagabeko meniak poztzen gaituzte. Bi neurri horiek euskal gatazkaren bukaera ekarri behar dute, Espainiako Gobernuak baikorki erantzuten badu bederen. Lehen jestua Espainian barreiatu dauden euskal presoek hurbiltzea litzateke, legeak dioen gisan. Frantziako Gobernuak, errepresioan inplikaturik ere, zentzu horretan keinu bat egin beharra du ere, bere homologoa espainola bide onera bultzatzeko. Hasteko, euskal militanteak polizia espainiarraren esku ezartzeko gelditu beharko luke. Denabian jarri beharra dago bakea errealtate bihurtzeko». X

«Bortizkeriak ez du eskubiderik sortzen», iparraldeko sozialistek diotenez

Astebeteko isilunearen ondoren, Pierre Guidoniren iritziaekin bat egin dute

Hur Gorostiaga / Baiona

LIZARRAKO akordioaz geroztik eta ETA erakundeak su-etena adierazi ondoren, Ipar Euskal Herriko hautetsi sozialistek atxikia zuten erabateko isiltasuna hautsi zuten atzo. Alderdi Sozialistako Ipar Euskal Herriko Idazkaritza Federalean bildurik, joan den astean Pierre Guidoni Frantziako Alderdi Sozialistako nazioarteko arduradunak egindako adierazpenarekin bat egin dute

hitzez hitz «eta erreserbarik gabe».

«ETAK gehiegikeriak eta erailketak etetea hartu duen erabakiaz jabetu da Alderdi Sozialista. Espero dugu su-etena honek terrorismoaren erabateko bazterketa eta armen uztea ekarriko duela. Pozten gara enfrontamenduaren ordez elkarriketa laguntzen duen guztia ere, eta Euskadin bake iraunkorrerako ahalmenak ikertzeko aukera ematen du».

Gisa berean, Alderdi Sozialis-

tak oroitu du «Espainia bezalako herri demokratiko batean, arazo politikoak bozken bidez konpondu behar direla, eta instituzio legitimoen baitan sufragio popularren bidez. Bortizkeriak ez du eskubiderik sortzen, eta are gutxiago horrekin sofritzen dutenen geroaz erabakitzeko».

«Frantziako Errepublikako lurraldeak ez eta hiritarrek ere ez dute inolako zerikusirik Lizarran izan berri diren elkarriketekin», sozialistek diotenez. X

LEGAZPIN GI-2630 ERREPIDEAREN SAIHESBIDEA EGITEKO PROIEKTUA (GAKOA: 2-V-81/96-)

1998ko irailaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 178 zk.an, LEGAZPIN GI-2630 ERREPIDEAREN SAIHESBIDEA EGITEKO PROIEKTURAKO (2-V-81/96-) behar diren lursailak Hartu Aurreko Aktak egiteko deialdia argitaratu da. Irigarik, hartu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda zehatza eta banakaturia ere ageri da.

Donostia, 1998ko irailaren 18a



Gipuzkoako Foru Aldundia
Garraio eta Errepide Departamentua